

2017KO ABUZTUAREN 24N EGINDAKO APARTEKO UDAL BILKURAREN

AKTA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2017ko abuztuaren 24an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren aparteko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean honako gai hau eztabaidatu eta erabagi da:

1.- 2017KO GARAGARRILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2017ko garagarrilaren 27an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori ago batez onartu dabe.

2.- INDARREAN DAGOAN UDAL AURREKONTU OROKORRAREN 5. ALDARAZPENA (KREDITUEN TRANSFERENTZIAREN MODALIDADEAN) ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Kreditu transferentziaren nondik-norakoa:

Kredituak transferitzen diren gastu partidak (bajak)

BEHARREKONTSAREN FINANTZAKOZKO PROPOSAMENA

Besta partidak kontzeptuak	Balabidetasun kontzeptua FINANTZAKOZKO Balabidetak	Bideratzen iradiltzek	Ordaindua	Ordina
133.227.59.08	Ota	262.982,31 €	61.582,00 €	201.400,31 €
520.201.00.00	Rep y conservación edificios municipales	75.895,42 €	94.800,00 €	99.895,42 €
		338.877,73 €	156.382,00 €	248.195,73 €

Handitzen diren kredituen gastu partidak (altak)

Aurrekontu partidak	Kontzeptua	Kredituak		
		Concepción	Aldearenak	Berria iradiltzek
1531.210.00.98	REPARAC. Y CONSERV. - VIAS PUBLICAS Y CAMINOS	84.996,78 €	8.000,00 €	92.996,78 €
166.211.00.11	REPARAC. Y CONSERV. - DEPURADORA RESIDUALES Y POZO BOMBEO	4.117,09 €	25.000,00 €	29.117,09 €
150.227.07.01	Arquitecto	22.438,00 €	7.582,00 €	30.000,00 €
150.622.01.01	Inversión eficiencia energética urbana y ajto	0,00 €	45.000,00 €	45.000,00 €
920.626.00.01	Equipamiento informático	0,00 €	10.000,00 €	10.000,00 €
		111.551,87 €	95.582,00 €	207.133,87 €

Amets Jauregizar alkate andreak, aldarazpen horri buruzko azalpenak emon dauzan ezkerro, bai eta informazio batzordean aztertu dan ezkerro be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau: **2017 ekitaldiko udal aurrekontuari buruzko 5. aldarazpen espedientea onartzea, beti be kreditu transferentziaren modalidadean**

3.- 2017KO EKITALDIARI JAGOKONEZ, BAKIOKO KULTUR ETA KIROL ALKARTEEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Ikusita espedientean Instrukzino organoak 2017ko abuztuaren 10ean egindako bileran, Bakioko elkarteek diru-laguntzak jasotzeko aurkeztutako eskabideak aztertu ostean, egindako ebazpen proposamena

Ikusita bai eta Bakio Bizi Informazio Batzordeak emondako irizpena.

Ondorengo hau kontuan hartu beharrekoa da:

“GERTAKARIAK

Lehenengoa.-2016. urtearen hasieran, udalak udalerriko elkarteetako ordezkariekin batera prozedura parte-hartzaile bati ekin zion, toki administrazioak urtero-urtero taldeei banatzen dizkien diru-laguntzen araubidea aldatu eta diru-banaketa bidezko, zehatz eta objektiboagoa izan zedin.

Hainbat bileratako prozesu parte-hartzaile horren ondorioz, 2016ko udazkenean zenbait irizpide adostu ziren udalaren eta elkarte guztien ordezkarien artean. Beraz, honako erabaki hau hitzartu zen: irizpideok oinarria izatea zenbaketa egin eta diru-laguntzak banatu ahal izateko.

Bigarrena.-Udalbatzak 2016ko azaroaren 10ean behin betiko onartu zuen kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzen emakida arautzen duen udal ordenantza.

Hirugarrena.- Udal ordenantza horren 5. artikuluan diru-laguntzak emateko kontsezio prozedura ezartzeaz gain, bertan zehazten da diru-laguntzak emateko deialdia beharrezko batzordearen irizpenaz eta, horren ostean, udalbatzaren erabakiaren bidez egingo dela eta bertan kasu bakoitzeko prozedura arauak, balorazioak eta ebazpen zehatzak ezarriko direla Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 17. artikulua aplikatuz.

Laugarrena.- Prozedura horri jarraikiz, udalbatzak aurtengo apirilaren 27ko osoko bilkuran onartu zuen udalerriko elkartei diru-laguntzak emateko deialdia.

Bosgarrena.-Deialdian ezarri zen eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 22tik ekainaren 30era artekoa izango zela; beraz, epe horretan aurkeztutako eskaerak aztertu dira.

Seigarrena.- Kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzen emakida arautzen duen udal ordenantzak bere 13. artikuluan ezartzen du udalbatza izango dela ebazpena emateko erakunde eskuduna, behin instrukzio organoak emandako ebazpen proposamena eta beharrezko informazio batzordeak egindako irizpena kontuan hartu eta gero.

Zazpigarrena.-Aipatutako artikulua berak jasotzen du ebazpena emateko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango dela, deialdia argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Deialdia maiatzaren 22an udalaren iragarki taulan eta udaleko webgunean argitaratu zenez gero, jendaurreko izapideari ekinez, diru-laguntzaren ebazpena abuztua amaitu orduko eman beharko litzateke.

ZUZENBIDEOINARRIAK

Lehenengoa.- Udalbatzak 2017ko martxoaren 30eko osoko bilkuran onartu zuen 2017ko ekitaldiko udal aurrekontua. Aurrekontuan 330-4810120 partida dago, eta bertan zainpetzen da udalerriko elkarteen artean norgehiagoka bana daitekeen gehieneko kopurua, 27.000 eurokoa, hain zuzen ere. Beraz, diru-laguntzak emateko beharrezko aurrekontu zainpeketa eginda dago.

Bigarrena.- Indarreko udal ordenantzak eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak ezarritakoa bete beharra dago, bereziki lege horren 19. artikulua 3. zenbakian ezarritakoa: “emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera”

Hirugarrena.- Diru-laguntzen deialdiaren 10. artikulua ezartzen du zein izango den laguntzak emateko instrukzio organoa. Era berean, ordenantzak ezarritakoari jarraituz, udalbatzak ebatziko ditu diru-laguntzak, behin instrukzio organoak emandako ebazpen-proposamena eta beharrezko informazio batzordeak egindako irizpena kontuan hartuta.

Laugarrena.- Gauzak horrela, instrukzio organo hau da ebazpen proposamena emateko organo eskuduna, laguntza deialdiaren 10. artikulua xedatutakoarekin bat.

Bosgarrena.- Aurkeztutako eskabideak instrukzio organoak balioetsi ditu alde aurretik, betiere beharrezko batzordean aurkeztu aurretik.

Seigarrena.- Deialdiaren 9. artikuluan ezartzen da zeintzuk diren diru-laguntza emateko oinarri gisa baliatu beharreko irizpideak eta 11. artikulua zeintzuk diren diru-laguntzaren zenbatekoak eta ordaintzeko moduak”.

Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau:

Lehenengoa.- Bakioko elkarteek legezko epe barruan egindako eskaerak baiestea, guztiek betetzen baitituzte deialdiak eta ordenantzak eskatutako betekizunak.

Bigarrena.- Ebazpen honen eranskinean zerrendatutako elkartei bertan adierazitako balioespena ematea, betiere udal ordenantzak eta deialdiak jasotzen dituen eta eranskinean xehakutzen diren balioespen irizpideekin bat etorritik.

Hirugarrena.- Elkarte bakoitzari ebazpen honen eranskinean jasotzen den diru-laguntza esleitzeko proposamena egitea, betiere balioespen irizpideen arabera jasotako puntuazioa aintzat hartuz eta deialdiaren 11. artikulua zehaztutako ezarpenekin bat.

Laugarrena.- 2017ko udal aurrekontuaren gastuen orriko 330-4810120 partidaren pentzura gastua egitea erabagi, beti be diru-laguntzak ordaindu ahal izateko.

ERANSKINA

Eranskinaren azalpen atala eta irizpideen nondik norako orokorrak

Deialdiaren haritik, aurten hamahiru elkartek aurkeztu dute laguntza jasotzeko beharrezko eskabidea.

Txosten guztiak aztertu dira kultur eta kirol taldeei diru-laguntzak emateko indarrean sartutako ordenantza berriaren irizpideei jarraituz.

Indarreko ordenantzan eta egindako deialdian zehaztutako irizpideen atal nagusiak honakoak izan dira: euskara, berdintasuna, taldearen inplikazio nahiz lankidetzaren proiektuaren ezaugarriak eta bestelako bereizgarriak. Era berean, Bakioko elkarte guztiek eskaerak aurkeztu ahal izan dituzte helburu horri begira prestatutako eranskinetan. Eskaera batean izan ezik, gainerako eskaera guztietan erabili dituzte deialdiari atxikitako eranskinak, zatiz edo osorik.

Balorazio irizpideak kuantitatiboak nahiz kualitatiboak dira, eta kontuan hartu dira betiere elkarteek eurek aurkeztutako agiriak. Dokumentazio hori oinarri, irizpideak balioestera jo da, horretarako ordenantzan ezarritako balorazio irizpideen atal bakoitzaren faktoreak eta haien puntuazioak zenbatuz.

Horrela, elkarte bakoitzari zenbaketa zehatza ezarri zaio, eta hori berori izango da dirulaguntza esleitzeko erabiliko den puntuazioa.

Beraz, talde bakoitzari puntuaren bidez esleitutako balioespenak izango dira aurrekontu partidan jasotako zuzkidura banatzeko funtsa eta horrelaxe jasotzen da erantsitako taulan.

Irizpide bakoitzaren balioespena

Hasteko eta behin, aipatu beharra dago elkarte guztiei gehieneko puntuazioa eman zaiela berdintasunari buruzko irizpidearen komunikazioaren atalean eta bestelako irizpideen ikastaro edo hitzaldien atalean, oro har berdintasunaren aldeko jarraibidea errespetatzeagatik eta udalak elkartei zuzendutako ikastaro edo hitzaldirik ez antolatzeagatik, hurrenez hurren.

Arestian aipatu bezala, elkarteek eurek adostu eta ordenantzan nahiz deialdian jasotako irizpideak kuantitatiboak eta kualitatiboak izanik, zenbait zenbagarriak dira eta beste batzuk balio iritzien bidez balioetsi behar dira.

Edonola ere, irizpide guztiak zenbagarri bilakatzen jo da, jarraian irizpide bakoitzerako azaldutako honako gidalerroetan oinarri hartuz:

a.- Euskararen erabilera sustatzea eta proiektua euskaraz garatzea (gehienez 10 puntu)

Erabilera ahoz eta idatziz (3 puntu). Gidalerroa: elkarteek barne nahiz kanpo harremanetan erabiltzen duten ohiko hizkuntza.

Entseguak, entrenamenduak, tailerrak, aurkezpenak... (3 puntu). Gidalerroa: elkarteek barne funtzionamenduko entseguetan, entrenamenduetan nahiz ekitaldi, ekintza, jarduera eta antzekoetako aurkezpenak egiterakoan erabilitako hizkuntza, eskaeran azaldutakoa oinarri.

Euskararen erabilera sustatzea elkarteko kideen artean eta ikus-entzuleen edo partaideen artean (4 puntu). Gidalerroa: euskara elkarte barruan nahiz kideen artean sustatzeko beren-beregi antolatutako ekimen, ekintza edo jarduerak.

b.- Berdintasuna sustatzea gizonezko eta emakumezkoen artean (gehienez 5 puntu)

Idatzizko nahiz ahozko komunikazioan (2 puntu). Gidalerroa: elkarreek erabilitako hizkera inklusiboa, diskriminaziorik eza, irudi egokiak...

Zuzendaritzan (puntu 1). Gidalerroa: emakumezkoen presentzia %50etik gorakoa izan denean, gehieneko puntuazioa; horren ondoren, puntuazio proportzionalak.

Elkarte barruan genero berdintasuna sustatzeko proposatutako ekimenak (2 puntu). Gidalerroa: azaldutako jarrera eta jokabide inklusiboez gain, berdintasuna sustatzeko beren-beregi antolatutako jarduketak, ekintzak, planak, jardunaldiak...

c.- Taldearen inplikazioa eta lankidetzaren udalak antolatutako jardueretan (gehienez 10 puntu)

Antolakuntza: Olentzero, Euskararen eguna, jai batzordea ... (5 puntu). Gidalerroa: ebazpen proposamen hau prestatzeko orduan, jai batzordea bakarrik egin denez, bileretan izandako partaidetza proportzional hutsa (bertaratutako bileren kopurua).

Partaidetza: Santa Ageda, Euskararen eguna, jaiak... (5 puntu). Gidalerroa: elkarreek herri guztiari zabalik prestatutako ekintza berezietan izandako antolakuntza maila (ez partaidetza), betiere ekintzen kopurua eta haien izaera aintzat hartuz.

d.- Proiektuaren ezaugarriak (gehienez 10 puntu)

Jardueren maiztasuna eta kopurua (3 puntu). Gidalerroa: elkarte bakoitzak bere kideak elkartzeko maiztasuna (entseguak, entrenamenduak...) eta ekintzak antolatzeko maiztasun eta kopurua.

Egindako jardueren ikus-entzuleen kopurua (5 puntu). Gidalerroa: ekintzen zenbatekoaren batez bestekoan bildutako ikusle kopurua, honako parametroa baliatuz: 100tik gora, 5 puntu eta hortik behera modu proportzionalan.

Elkarte eskatzailearen kide kopurua (2 puntu). Gidalerroa: 50 kidetik gora 2 puntu eta hortik behera modu proportzionalan.

f.- Bestelakoak (gehienez 20 puntu)

Euskal kultura edota Bakioko irudia kanpoaldean zabaltzea eta sustatzea (2 puntu). Gidalerroa: herritik kanpo egindako jardueren presentziaren garrantzia eta euskal kulturari berariaz lotutako ekintzen izaera.

Genero berdintasuna, euskararen erabileraren sustapena, ezinduen edo etorkinen integrazioa eta antzeko gaiak hobetzeko antolatzen diren ikastaro edo hitzaldietan parte hartzea (3 puntu). Gidalerroa: elkarte guztiei 3 puntu eman zaizkie, oraindik ere halakorik antolatzeke aukerarik izan ez delako.

Ezinduak edota etorkinak integratzeko ahaleginak (2 puntu). Gidalerroa: elkarte bakoitzak bi gai hauek lantzeko berariaz egindako ekintzak edo bideratutako ekimenak.

Belaunaldien arteko harremanak sustatzeko egindako ahaleginak (2 puntu). Gidalerroa: elkarte bakoitzak belaunaldien arteko harremanak lantzeko eta estutzeko azaltzen eta antolatzen dituzten jarrerak eta ekintzak.

Proiektu bakoitzaren alde berritzaile eta osagarriak, beste ataletan jorratu gabeak (3,5). Gidalerroa: neurgaitza izanagatik ere, txantiloietan agertutako azalpenez gain, ekintzetan azaltzen den alde berritzailearen balioespena.

Bestelako laguntza ekonomikoak eskuratzeko egindako ahaleginak (loteria, kamisetak, udalez gaindiko erakundeak...) (3 puntu). Gidalerroa: diru-sarrerak lortzeko erabilitako bestelako bideen balioespena.

Laguntza eskatzeko aurkeztutako txostenaren kalitate eta zehaztasuna (3 puntu). Gidalerroa: aurreko txosten guztien kalitatea oso egokia izanik, bereizgarritasuna aurkeztutako informazio gehigarria izan da.

Elkarte bakoitzaren antzinatasuna (1,5). Gidalerroa: 25 urtetik gorako elkarteek, 1,5 puntu eta hortik behera modu proportzionalan.

Talde bakoitzari esleitutako puntuazioa eta horren heineko diru-laguntza

Deialdiak ezarritakoa betez, diru-laguntzak bateragarriak dira bestelako erakunde publikoek zein pribatuak xede berarekin emandako edozein diru-laguntzarekin. Zenbatekoari dagokionez, elkarte bakoitzari gehienez eman zaion diru-laguntza xede honetarako ezarritako aurrekontu partidaren %10 izan da. Hortaz, eskatzaileei gehienez eman ahal izan zaien diru-laguntza 2.700 eurokoa izan da, betiere, elkartearen aurrekontua gaingitu ezean. Izan ere, deialdiak zehaztu bezala, lortutako diru-laguntza ezin da izan elkarte bakoitzaren aurrekontuaren % 90 baino altuagoa, gainfinantziatorik egon ez dadin.

Eskaerak eta proiektuak aztertu eta baloratu ondoren, lortutako puntuak batu, eta ondoko koadroari jarraituz banatu da xede honetarako dagoen diru-laguntza partida:

Proiektuari emandako puntuak	Emandako diru-laguntzaren %
40 puntu edo gehiago	Partidaren % 10 (2700€)
32-39 puntu	Partidaren % 7,5 (2025€)
24-31 puntu	Partidaren % 5 (1350€)
16-23 puntu	Partidaren % 2,5 (675€)

15 puntu edo gutxiago

100€

Bestalde, diru-laguntzen emakida ebazpena egiterakoan honako baldintza ezarri da: aurrekontuaren eta kreditu egokiaren eta nahikoaren arabera baldintzatzea. Izan ere, eskaera kopuruaren ondorioz diru-laguntzaren 27.000 euroko kopurua ez da behar bestekoa izan ontzat emandako eskaera guztiei gehieneko zenbatekoa eman ahal izateko; hori gertatu denez, aurrekontu partidan ezarritako diru-kopurua ontzat emandako eskaeren artean hainbanatu da modu proportzionalan, betiere gorago zehaztutako taulan jasotako portzentajeak kontuan hartuz.

Aurten udalak diru-laguntzen kontzeptu honetarako ezarritako aurrekontu partida 27.000 eurokoa izan da. Hori kontuan hartuz, eta talde guztien artean eskuratutako puntuen batuketa egin eta beharrezko kopuruak hainbanatu ondoren, hona hemen elkarteek eskuratutako diru-kopurua:

Abesbatza

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
3,5	3	8	9,5	11,5	35,5	1.974€

Alaitasuna

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
8,5	4	9	9	16	46,5	2.639€

Atxurre

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
6	4	8	8	13	39	1.974€

Bizilore

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
2,5	3,5	2	6	10,5	24,5	1.298€

Bakio Kirol Taldea

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
4,5	3,5	9	10	15	42	2.639€

Guraso elkarte

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
9	3,5	8	10	15	45,5	2.639€

Gure Etxea

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
3,5	3,5	7	9	11	34	1.974€

Haria

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
1,5	5	1	5,5	10,5	23,5	663€

Itxas-Alde

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
9	3,5	4	10	14	40,5	2.639€

Marta Txori

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
4	5	9	8	11,5	37,5	1.974€

Motor Sport

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
4,5	3	6	8	10,5	32	1.974€

Musikale

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
9	4	6	10	11,5	40,5	2.639€

Surf

Euskara	Berdintasuna	Inplikazioa	Proiektua	Bestelakoak	Guztira	Eurotan
2	3,5	6	8	13,5	33	1.974€

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoenez, alkate andreak batzar hau 19:15ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria